

MUk Ate Irekien hogei bat Jardunaldi antolatu ditu bere 5 kanpusetan

2009/02/19

Mondragon Unibertsitateak Ate Irekien 19 jardunaldi antolatu ditu ikasturte honetarako bere bost kanpusetan. Bi ordu inguru iraungo duten unibertsitate-atariko jardunaldiotan fakultate bakoitzak bere eskaintza akademikoaren eta titulazioen berri zehatza emango du. Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak –Arrasateko eta Ordiziako kanpusetan-, Enpresa Zientzien fakultateak –Oñatiko eta Bidasoako kanpusetan-, eta Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateak –Eskoriatzan- osatzen dute Mondragon Unibertsitateak Euskal Herrian duen eskaintza akademikoa.

Ate Irekien Jardunaldiak, Mondragon Unibertsitatea bertatik bertara ezagutu nahi duten unibertsitate-ikasle izango direnei, gurasoei, irakasleei eta orientatzaileei bideratuta daude. Izan ere, jardunaldiotan fakultate bakoitzak zehaztasunez aurkeztuko ditu bere ikastetxeetan eskaintzen dituen titulazioak, eta gaiaren inguruko zalantzak argituko ditu. Unibertsitate-atariko orientazio-jardunaldiok osatzeko, Euskal Herriko ehun ikastetxe baino gehiagotan aurkeztuko dute Mondragon Unibertsitatearen hezkuntza-eredua.

Helburuak

Jardunaldiok hainbat helburu dituzte. Batetik, aukera ezin hobe dira Mondragon Unibertsitateko fakultateetako sailburuekin eta irakasleekin iritziak trukatzeko eta zalantzak argitzeko. Bestetik, jardunaldiotan parte hartzea erabakiko dutenek bertatik bertara ezagutuko dituzte instalazioak, fakultate bakoitzak dituen laborategiak edo lantegiak. Aldi berean, unibertsitatean gaur egun aurrera daramatzaten proiektuak hurbiletik ikusteko aukera izango dute bisitariek.

Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Espaziora egokitzeko prozesuak garrantzi berezia izango du aurtengo hitzorduotan. Izan ere, Europara egokitutako sei titulu eskaintzen ditu aurten Mondragon Unibertsitateak, eta 2009/10 ikasturterako titulazioen % 100 egongo da esparru europarrera egokituta. Gaur egun eskaintza akademikoa Europako eskakizunetara egokituta duen euskal unibertsitate bakarra da. Unibertsitateak egindako ahaleginari esker, horrela nahi izan duten ikasleek aukera paregabea izan dute aurten Europako esparrura egokitzeko. Prestakuntzaren tren europarrera igotzeko aukera izan duen lehen promozioa da, hau da, esparru komunera egokitutako lehenena. Beraz, Europako eskakizunetara egokitutako titulua izango duten Euskal Herriko lehen ikasleak dira.

Ikasturte honetan, Europako esparrura egokituta dauden ingeniartzako eta enpresa zientzietako sei titulu eskaintzen ditu unibertsitateak, honako Graduak titulazio hauek, hain zuzen: Mekanikako Ingeniaritza, Industri Elektronikako Ingeniaritza, Industri Antolakuntzako Ingeniaritza, Informatikako Ingeniaritza, Industri Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza, eta Enpresa Administrazio eta Zuzendaritza Gradua. 2009-10 ikasturtean, gainera, honako Graduak titulazio hauek ere eskainiko ditu: Telekomunikazio Sistemen Ingeniaritza, Nazioarteko Kudeaketan Idazkaritza, Ekintzailetza eta Berrikuntzan Lidergoa, Ikus-entzunezko Komunikazioa, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza.

Mondragon Unibertsitatearen ezaugarri bereziek ere tarte garrantzitsua beteko dute Ate Irekien jardunaldiotan. Unibertsitatearen bereizgarritasunak azalduko dituzte, hala nola, enpresarekin duen zuzeneko harremana, ikasleek ikasketak eta lana bateratzeko duten aukera, ikasketak atzerrian osatzeko aukera, edota karrera-amaierako proiektuak. Horrekin batera, Mondragon Unibertsitatearen hezkuntza-eredua den Mendeberrri proiektuaren bilakaeraren berri izango dute jardunaldiotara bertaratuko direnek. Izan ere, Mendeberrri proiektuak lehenagoko hezkuntza-eredua ordezkatu du: ezagutzen transmisio hutsean oinarritutako ereduaren tokian, ezagutzen, gaitasunen eta



balioen garapenean oinarritutako eredu abiaturik da, non ikasleak zeharkako gaitasunak garatzen ikasten duen, talde-lana, lidergoa, komunikatzeko gaitasuna, arazoak konpontzea, etab. Eredu berria hirueleduna da, eta ikasketak burutzean ikasleak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez lan egiteko gaitasun-maila handia du. Gainera, informazio eta komunikazioko teknologiek eskaintzen dituzten aukerak profitatzen dituzte ikasleek. Azken finean, unibertsitateen europar esparrura egokitzeak dakartzan erronkekin uztartzen den hezkuntza-eredua da.

JARDUNALDIAK

Goi Eskola Politeknikoa

Arrasateko kanpusa

- Otsailaren 7an 11,00etan
- Martxoaren 12an 17,30ean
- Apirilaren 25ean 11,00etan
- Maiatzaren 7an 11,00etan
- Maiatzaren 21ean 17,30ean
- Ekainaren 13an 11,00etan. (Biteri Ikastetxe Nagusian)

Ordiziako kanpusa

- Otsailaren 26an 17,30ean
- Martxoaren 28an 11,00etan

Enpresa Zientzien fakultatea

Oñatiko kanpusa

- Otsailaren 12an 18,00etan
- Apirilaren 4an 13,00etan
- Maiatzaren 14an 18,00etan

Bidasoako kanpusa

- Otsailaren 21ean 10,00etatik 13,00etara
- Apirilaren 2an 18,00etan
- Maiatzaren 7an 18,00etan
- Maiatzaren 12an 18,00etan

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatea

Eskoriatzako kanpusa

- Otsailaren 19an 18,00etan
- Martxoaren 12an 18,00etan
- Apirilaren 23an 18,00etan
- Maiatzaren 9an 11,00etan

Dena den, jardunaldioi buruzko informazio gehiago eskuratzeko aukera dago Mondragon Unibertsitatearen web orrian, honako helbide honetan:

www.mondragon.edu